

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

# 444

*EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 21ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2014ko garapenerako lankidetzaren kontura ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egiten duena.*

Hondamendiak edo krisialdi humanitarioak desegituratze sozial eta ekonomikoko prozesuak dira, eta elikagaien eta sanitatearen baldintzetan kalte handia eragiten dute, baita heriotza-tasa handitu ere. Kalamitate naturalek edo gatazka armatuek eragiten dituzte hondamendi horiek, baina azken batean, horien intentsitatea biztanleen kalteberatasun-mailak ezartzen du.

Ekintza humanitarioak gaur egun aurre egin behar dien eszenatoki ohikoek eta larriek erroka kontzeptual eta operatibo berriak sortzen ditu, besteak beste printzipio humanitarioak babestea eta ekintza humanitarioa bakea eraikitzeke tresna baliagarri gisa erabiltzea.

Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak 31/2008 Dekretuaren bidez ezarri ditu ekintza humanitarioak burutzeko laguntzak (31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen dituena; 2008ko otsailaren 27ko EHAA, 41. zk.). Dekretu honek ekintza humanitarioko politika bat lankidetzaren estruktural eta eraldatzaileekin bat eginik formulatzeko eta betearazteko tresna izan nahi du, printzipio humanitarioetan eta pertsonen eskubideetan oinarritutakoa, gai horretan nazioarteko jarrera-kode eta -arauak errespetatzen dituena, koherentea, parte-hartzailea eta epe ertaineko eta luzerako helburuei, esaterako, giza eskubideen defentsari, bakearen eraikuntzari edota etorkizuneko garapenari loturik dagoena.

Esparru humanitarioan lan egiten duten euskal erakundeen izaera heterogeneoa dela medio, 31/2008 Dekretuari ahalik eta malgutasunik handiena ematen saiatu gara. Ildo horretan, etengabeko finantzaketa-linearekin jarraitzeaz gain, beste finantzaketa-linea bat gaineratu da ekintza humanitarioko estrategia markoetarako, espezializazio humanitario handiagoa duten erakundeentzat.

Laguntza horrek etorkizuneko garapenaren oinarriak ezartzen lagundu behar du, alde kalteberak murriztuz eta toki-ahalmenak handituz, horrela sendotzen direlakoan populazioen aurre egite-estrategiak eta erakundeen erantzute-tresnak.

Aipatu otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 4. artikulua arabera, laguntzak emateko deialdia urtero egingo da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, eta bertan honako puntu hauek zehaztuko dira: diru-laguntzen zenbatekoa, xedea, eskabide-eredua, epeak, eskabi-deak aurkezteko tokia, eta ezarritako bi finantzaketa-linea horien balorazio-irizpideak.

Deialdi hau egiteko eskumenari dagokionez, eta ondoko dekretu hauek aplikatuaz: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, lehendakariarena; eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen agintaritza.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

Laguntza horiek kudeatu eta horretarako eman behar diren ebazpenei dagokienez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena da eskumena (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua).

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso zuela, 2013ko abenduaren 4an egindako bilkuran.

Horren ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren bidez (2008ko otsailaren 27ko EHAA, 41. zk.) araututako ekintza humanitariotarako laguntzen 2014. urteko ekitaldirako deialdia egitea da ebazpen honen xedea. Garapen Lankidetzarako Funtsaren kargurako ekintza humanitariotarako laguntzak arautzen ditu dekretu horrek. Guztira, 3.600.000 euro emango dira.

##### 2. artikulua.– Diru-hornidura.

Finantzaketa-linea bakoitzerako honako diru-zuzkidura hau egongo da:

a) Larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako laguntzen finantziazio-lerro iraunkorra. 1.600.000 euro.

b) Ekintza humanitarioko estrategia markoen finantziazio-lerroa: 2.000.000 euro.

Garapen Lankidetzarako Funtsaren kargurako ekintza humanitarioak arautzen dituen 2008ko otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 20. artikuluekin bat etorritik, zenbateko jakin bat ezin bazaio esleitu ekintza humanitarioko ezein estrategia markori, ekintza humanitarioen kopuru egoki batek eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez duelako edo bete beharreko eskakizunak betetzen ez dituelako, edo eskuragarri dagoen aurrekontu-zuzkidurarako behar adina eskabide jaso ez direlako, zenbateko hori etengabeko finantzaketa-lerrora bideratzeko aukera izango da. Zenbateko hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Kanpo Harremanetarako idazkaria nagusiak horretarako ebazpena eman ondoren. Argitaratu egingo dira, halaber, euskal gizartearen parte-hartzetik datozen berriazko funtsen horniduraren bidez etor daitezkeen zenbateko berriak edota Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe gera daitezkeen aurrekontu-baliabideetatik etor daitezkeenak.

Etengabeko finantzaketa-lerrora zuzendutako funtsak agortzea ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

##### 3. artikulua.– Eskaeren aurkezpena.

a) Larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako laguntzen finantziazio-lerro iraunkorra. Finantziario iraunkorraren lerrorako eskabideak 2014ko aurrekontu-ekitaldian zehar aurkeztu beharko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

b) Ekintza humanitarioko estrategia markoen finantziazio-linea: hautagaitzak hilabeteko epean aurkez daitezke, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamundetik aurrera.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, I. eranskineko ereduaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan (Nafarroa kalea 2, 01007, Vitoria-Gasteiz), edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Horretarako, inprimaki normalizatua aurkeztu beharko da, guztiz bete ondoren. Eskabide-eredua honako egoitza elektronikoa honetan eskuragarri dago: [www.elankidetza.euskadi.net](http://www.elankidetza.euskadi.net)

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri beharko dira, egiaz-tatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko.

Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Orobat, prozeduran zehar, pertsonak hautatutako hizkuntza erabiliko da, hala xedatuta baitago Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarriko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan.

#### 4. artikulua.– Etengabeko Finantzaketa-linea.

##### a) Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak.

Erakunde eskatzaileak bete beharreko baldintzak 31/2008 Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude (31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituena).

##### b) Instrukzio.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eskabidearen balorazioa helaraziko dio Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuari, eta zerbitzu horrek eskabideen azterketa teknikoa eta balorazioa egingo du, eta horren berri emango dio Agentziako Zuzendaritza Batzordeari. Batzorde horrek laguntzak emateko proposamena prestatuko du, horretarako egingo duen bileran.

##### c) Erabakia.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak 2014an eskatutako laguntzak onetsi edo ezetsiko ditu, kontseilu errektoreak proposatutako irizpideei jarraikiz, eta horren berri emango dio kontseilu errektoreari.

##### d) Ordaintzeko modua.

Ordainketa bakarraren bidez ordainduko dira laguntzak, behin diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren.

##### e) Justifikazioa.

Proiektuaren azken datatik hasi eta lau hilabeteko epean erakunde esleipendunak txosten bat aurkeztu beharko du, Garapen Lankidetzarako Funtzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen dituen 2008ko otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitako eran. Azken finantza-txostenean, proiektuaren kostu guztien % 100a justifikatu beharko da.

#### 5. artikulua.– Ekintza humanitarioko estrategia-markoen finantzaketa-lerroa.

##### a) Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak.

Erakunde eskatzaileak bete beharreko baldintzak 31/2008 Dekretuaren 21. artikuluan jasota daude (31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituena).

## b) Instrukzioa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dio eskabidearen balorazioa, eta kontseilu errektoreak horretarako beren-beregi bilera eginik, eta Garapenerako Lankidetzaren Agentziak aurretiaz txostena bidalirik, behar diren laguntzak ematea proposatuko du.

## c) Erabakia.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak emango edo ukatuko ditu 2014an eskatutako laguntzak. Ebazpena EHAAn argitaratuz jakinaraziko da.

## d) Esanbidezko ebazpenik ez ematea.

Deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita sei hilabeteko epean esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

## e) Hitzarmena.

Diru-laguntza onartu ondoren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta erakunde eskatzailearen arteko hitzarmena sinatuko da, emandako diru-laguntza bakoitzeko. Horretarako, II. eranskineko ereduari jarraituko zaio.

## f) Ordaintzeko modua.

Emandako diru-laguntza honako epe hauetan ordainduko da:

- Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 50, hitzarmena sinatzen den unean.
- Emandako diru-laguntzaren gainerakoa, estrategia markoaren aurrekontu osoaren % 30 egin dela justifikatu ondoren.

## g) Justifikazioa.

Erakunde eskatzaileak jarraipeneko txosten bat aurkeztu beharko du, aurrekontu osoaren % 30 justifikatzen duenean, bigarren ordainketa jasotzeko aukera emango diona, eta bestalde, amaierako txosten bat aurkeztu beharko du, laguntza gauzatu ondorengo lau hilabeteko epean, hala ezarrita baitago Garapen Lankidetzarako Funtzaren kargurako ekintza humanitariotarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 33. artikuluan.

## 6. artikulua.– Balorazioa.

Eskabideak I. eranskineko hautaketa-irizpideen eta baremazioaren arabera baloratuko dira.

## 7. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honen babesean emandako laguntzen zenbatekoak, xede bererako emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin batera, ezingo du gainditu proiektuaren kostu osoa. Hala gertatuz gero, jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, dagokion itzulketa-prozedura izapidetuta.

## 8. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntzak emateko baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada –baldintza horiek zehaztuta dauden 31/2008 Dekretuaren 46. artikuluan–, eta, edozein kasutan, xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik laguntzak edo diru-laguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide jaso bada, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

izango da, betiere diru-laguntza jasotzeko 31/2008 Dekretuan ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira.

#### 9. artikulua.– Itzulketak.

Erakunde esleipendunak ebazpen honetan ezarritakoa betetzen ez badu, aurkeztutako datuak faltsuak badira, jasotako diru-kopurua ematea eragin duenaz bestelako xede baterako erabil-tzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53. artikuluan bildutako gainerako ez-betetzeetako bat gertatzen bada, laguntza itzultzeko prozedura izapidetuko da, eta, ondorioz, esleipendunak diru-laguntza galduko du, eta jasotako diru-kopuruak eta dagozkien inte-resak itzuli beharko ditu, egokitzat jotzen diren gainerako ekintzak bazter utzi gabe, eta hori guztia abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa betez.

#### 10. artikulua.– Betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategi-neko 50.2 artikuluan ezarritako betebeharez gain, erakunde eskatzaileak behartuta daude Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiari deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematera, haiek beren eginkizunak betetzeko eskatzen badiete.

#### 11. artikulua.– Berme-araubidea.

Erakunde onuradunei abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritako berme-araubidea aplikatuko zaie. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermea eta itzulketak arautzen dira, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta obligazioak ezartzen dira. Horren indarrez, emandako diru-laguntza onartutzat joko da onuradunak aurkako esanbidezko aitorpenik egiten ez badu, betiere jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera hamar eguneko epean.

### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 34/2007 Dekretua aldatzen duen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretua. Bada, azken dekretu horren 23.4 artikulua dioenez, erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen diru-laguntzaren guztirako zenbatekoa zehaztuko da dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian.

Hori kontuan izanik, 2014ko aurrekontu-ekitaldian, urtean onartzen diren diru-laguntzetarako edozein deialdian onartzen diren diru-laguntzen % 7koa izango da erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen diru-laguntzaren guztirako zenbatekoa. Diru-laguntza horiek geroago ordaindu litezke, aurreragoko ekitaldietan.

### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituen otsailaren 19ko 31/2008 Dekretua aplika-tuko da, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea ere.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.**

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Eraginkortasuna.**

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 21a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## I. ERANSKINA

## ESKABIDE-EREDUA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

## 1.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTURA ORDAINDU BEHARREKO LARRIALDIETARAKO ETA EKINTZA HUMANITARIOETARAKO LAGUNTZEN FINANTZAZIO-LERRO IRAUNKORRENTZAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

Erakunde eskatzailea:

Proiektuaren izena:

Deialdia:

Data (uu/hh/ee):

Proiektu mota:

- Larrialdietarako laguntza.
- Laguntza humanitarioa.
  - Errefuxiatuei eta lekualdatutako pertsonei laguntza luzaroan ematea.
  - Hondamendiak arintzea.
  - Hondamendiei aurre egiteko prest izatea.
  - Gatazkei eta hondamendiei aurrea hartzea.
  - Hondamendi osteko errehabilitazio hasierakoa.

jarduera-sektoreak

- Babesa, aterpea, oinarrizko gauzak..
- Osasuna.
- Hezkuntza.
- Elikadura-segurtasuna.
- Jarduera ekonomikoak berrabiaraztea.
- Tokiko gaitasunak sendotzea.
- Ura eta saneamendua.
- Azpiegiturak berreraikitzea.
- Giza eskubideen aldeko jarduerak.

Markatu lauki hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jakinarazpenak jaso nahi badituzu eskabidean adierazitako helbide elektronikoan.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## INFORMAZIO OROKORRA – PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK:

Proiektuaren izenburua (hamar hitz gehienez):

Herrialdea / eremu geografikoa:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa/informazioa eranskinetako I. paragrafoan)

Partzuergoa bada, adierazi, lehenengo, zein den partzuergoaren burua, eta gero, zein diren partzuergoko gainerako erakundeak.

Helbidea / erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

IFZ:

Eratze-data:

Nortasun juridikoa:

EAEko pertsona ahalordea:

Kargua:

Sinadura, eskaeran duen erantzukizuna bere gain hartzen duena eta eranskinetan aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa dela ziurtatzen duena.

Harremanetarako pertsona (adierazi izena, telefonoa eta helbide elektronikoa):

Tokiko erakunde herrialde hartzailean (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa / informazioa eranskinetako II. paragrafoan)

Helbidea / erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

Eratze-data:

Nortasun juridikoa:

Ahalduna:

Kargua:



2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## IRAUNALDIA:

Hasteko aurreikusitako data (uu/hh/ee):

Bukatzeko aurreikusitako data (uu/hh/ee):

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

## FINANTZAKETA, GUZTIRA

Guztizko kostua:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako ekarpena:

(\*) Partzuergoa bada (erakunde eskatzailearen atalean), adierazi zenbateko diru-laguntza eskatu zaion Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari, diru hori partzuergoko erakunde bakoitzak kudeatu beharko baitu.

- Partzuergoko burua den erakundeak kudeatzeko eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan):
- Lerro bat sartzea partzuergoko buru ez den erakunde bakoitzeko, kudeatzeko eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazita (eurotan).

Tokiko moneta euroen truke aldatzeko erabilitako kanbio-mota:

Emandako edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

	Onartuta/eskuragarria	Eskatuta
Euskadiko erakunde eskatzailea:		
Tokiko gizarte-erakundea:		
Xede-biztanleria:		
Beste ekarpen batzuk (sartu lerro bat kofinantzaketa-iturri bakoitzeko).		

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## ARGIBIDE TEKNIKOAK:

- 1.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (deskribatu, 5-10 lerrotan, proiektuaren edukia, daturik garrantzitsuenak adierazita).

- 2.– KOKAPEN ZEHATZA (erantsi eskualdeko mapa III. atalean, eta zehaztu proiektuaren kokapena).

- 3.– HONDAMENDIAREN TESTUINGURUAREN BALORAZIOA (erantsi eranskinetako IV. atalari informazio gehigarria).

- 3.1.– Hondamendiaren aurreko testuingurua (adierazi, besteak beste, esparru geografikoa, biztanleria, ezaugarri ekonomikoak, sozialak, kulturalak...).

- 3.2.– Hondamendi naturala, gatazka armatua edo hondamendia eragin duten beste kausa batzuk identifikatzea.

- 3.3.– Krisiak eragindako inpaktua eta beharrak ebaluatzea, baita tokiko baliabideen eta egituren kalteberatasuna ere, kalteberatasunari eta ahalmenari buruzko azterketa edo baliaturiko bestelako tresnak erantsita (kalteberatasunari eta ahalmenari buruzko azterketa ez da hain garrantzitsua larrialdiko laguntzen kasuan). Herrialdearen edo eskualdearen ohiko adierazleei dagokienez, adierazle espezifikoak aurkeztu beharko dira

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

3.4.– Herrialdean edo eskualdean, erakunde eskatzailearen alde aurretiko esperientzia edo presentzia: ekimenaren jatorria esplikatu; erakunde eskatzaileak eta tokiko bazkideak alde aurretik egindako proiektuak zehaztea; aditzera eman ea epe luzerako planifikaziorik dagoen edo ea antzeko proiektu edo ekimenik dagoen eta, baiezkoa bada, zein koordinazio-mekanismo aurreikusten diren.

--

#### 4.– XEDE-BIZTANLERIA.

4.1.– Xede-biztanleriaren identifikazioa (sexuaren, kopuruaren, gizarte-mailaren, etniaren eta abarren arabera bereizketa egin da).

Kokapena	Emakumeen kopurua	Gizonen kopurua	Pertsonak, guztira

4.2.– Xede-biztanleria aukeratzeko irizpideak. Behar izanez gero, deskribatu gizon eta emakumeen arteko banaketa zuzena sustatzeko ekintza positiboak.

4.3.– Proiektuaren zein fasetan eta nola hartzen duen parte xede-biztanleriak. Arreta berezia eskainiko zaio emakumeek proiektuan duten parte-hartzeari.

#### 5.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA

Hurrengo azpi-ataletan ondo azaldu proiektuaren nondik norakoak, honako hauek justifikatuz: giza baliabideen eta baliabide tekniko eta/edo materialen erabilera; aurreikusitako jardueren gauzatzea; emaitzen lorpena; proiektuaren berariazko xedearen lorpena; xede orokorra lortzeko laguntza.

V. atalari Proiektuaren Planifikazio Matrizea (PPM) erantsiko zaio. PPM horretan, labur-labur azalduko dira kontzeptu horiek, adierazleekin, egiaztapen-iturriekin, hipotesiekin eta kanpoko faktoreekin batera.

5.1.– Helburu orokorra (deskribatu, proiektua gauzatzeko, lortu nahi den helburu zabalena).

--

## 5.2.– Proiektuaren helburu espezifikoa.

5.2.1.– Proiektuaren helburu espezifikoa (adierazi zein den xede-biztanlerian lortu nahi den eragin positiboa, hondamendiaren balorazioan zehaztutako oinarritzko arazoak ebazteko).

5.2.2.– Helburu espezifikokoaren betetze-mailaren adierazleak (prozesu eta inpaktuko adierazle zehatzak deskribatuko dira, kantitateari edo kualitateari, denborari eta biztanleria onuradunari dagozkien datuekin, helburu espezifikoa lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeke. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanetan). Puntu hori ez da egokia larrialdi-laguntzako proiektuetarako.

5.2.3.– Adierazleak egiaztatzeke iturriak (adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeke zer iturri baliatzen diren zehaztuko da: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

5.2.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (deskribatu aintzat hartu beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuaren arrakastan eragin erabakigarria izan badezakete). Proiektuaren mesederako direnak aipatu behar dira.

## 5.3.– Aurreikusitako emaitzak.

5.3.1.– Espero diren emaitzak (zehatz-mehatz deskribatuko dira proiektua gauzatzean lortuko diren produktuak eta zerbitzuak; produktu eta zerbitzu horiek egindako jardueren ondoriozkoak dira eta helburu espezifikoa lortzen lagunduko dute).

5.3.2.– Emaizten betetze-mailaren adierazleak (prozesu eta inpaktuko adierazle zehatzak deskribatuko dira, kantitateari edo kualitateari, denborari eta biztanleria onuradunari dagozkien datuekin, aurreikusitako emaitzak lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeke. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanetan).

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

5.3.3.– Adierazleak egiaztatze bideak (adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatze zer iturri baliatzen diren zehaztuko da: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

5.3.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (emaitzak lortu eta gero, berariazko helburura iristeko beharrezkoak diren proiektuaz kanpoko baldintzak deskribatuko dira).

5.4.– Aurreikusitako jardueren zerrenda (deskribatu emaitzak lortzeko aurreikusi diren jarduerak, eta adierazi ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta materialak. Eranskinetako VI. atalean, aurrekontua jarri behar da, jardueraka banakatua).

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

6.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAZIOA. KONFINANTZATZAILEEN ARABERAKO BANAKETA (eranskinetako VI. atalean, aurrekontu-partida bakoitzerako aurreikusitako kostuaren banaketa zehaztutako da, kofinantzatzaileak aipatuz. Gainera, jarderaren arabera antolatutako aurrekontu bat ere aurkeztuko da eranskinetan).

PARTIDAK	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.	Euskadiko erakunde eskatzailea (*)	Tokiko erakundea eta xede-populazioa (*)	Beste ekarpen batzuk (*)	GUZTIZKOA
ZUZENEKO KOSTUAK					
A.I.- Materiala erostea, garraiatzea, biltegitratzea eta kudeatzea, oinarriko ondasunak eta zerbitzuak hornitzera bideratuak.					
A.II.- Materialak erostea, garraiatzea, biltegitratzea eta kudeatzea, proiektua exekutatzeko beharrezko direnak.					
A.III.- Giza baliabideak, tokikoak nahiz atzerriaratuak, eta horien bidaia-gastuak.					
A.IV.- Proiektuari lotutako langileen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, giza baliabideak eta ekipamendua.					
A.V.- Egoera ahulean daudenentzako laguntza, diru-ekarpenetan, bonoetan edo lanaren truke soldata ordainduta.					
A.VI.- Giza eskubideak defendatzeko edo lekukotasuna emateko egiten diren lanak edo txostenak lantzeko eta ezagutarazteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak.					
ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA					
ZEHARKAKO KOSTUAK			Ezin da.	Ezin da.	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak			Ezin da.	Ezin da.	
ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA					
GUZTIZKO OROKORRA, EUROTAN					
Guztizko kostuen gaineko ehunekoa					

(\*) Larrialdian laguntzeko proiektuen kasuan, ez da kofinantziaziorik eskatuko. Zentzu zabalean ekintza humanitariokoak diren proiektuetan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako diru-laguntza proiekturako onartutako aurrekontu guztiaren % 80 izango da.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

7.– BIDERAGARRITASUN-AZTERLANA (kanpoko laguntza bukatuagatik proiektuak etorkizunean ere jarraipena izango duela bermatzen duten faktoreak; eranskinetako VII. atalari erantsi behar diren laguntzeko dokumentuak).

7.1.– Abiarazitako ekintzen bideragarritasun teknikoa (dauden giza baliabideak, baliabide materialak eta metodologikoak). Bideragarritasuna sendotzen duten azterlanak eta analisiak: prestakuntza-planak, ikas-materialak, langileen profila eta egokitasuna, administrazio-lizentziak, ikerketak, eta abar).

7.2.– Erakundeen bideragarritasuna (toki-erakundeen jarrera: proiektuan parte hartzen duten edo abalen bitartez bultzatzen duten; tokiko politikak sektorean; erakundeen ahalmen teknikoak; administrazio-neurriak hartzea, hala nola baimenak eskatzea; erakunde eskatzailearen edo tokiko erakundearen eta tokiko edo nazioarteko agintari eta agentzien arteko koordinazioa).

7.3.– Segurtasuna (adierazi proiekturako idatzita dauden segurtasun-arauak eta segurtasun-prozedurak, eta zehaztu zein diren. Aipatu han bertan ari diren langileek ba ote duten arau eta prozedura horien berri, eta segurtasunaren inguruko prestakuntzarik ba ote duten. Adierazi ebakuzio-planik baden, segurtasun ezaren arazoren bat, edo osasun-arazoren bat sortuz gero).

8.– PROIEKTUAREN ZEHARKAKO LERROAK (abiarazten diren ekintzetan sartu behar diren analisiaren aldagaiak. Edozein estrategiatan sartu beharko dira, analisia eta diagnostikoa egiten diren unetik ebaluzioa egin arte. Sartze horren maila testuinguruaren, xede-populazioaren egoeraren eta proiektu-motaren arabera aldatu ahal izango da, baina epe luzeko proiektu estrategiko batean sartuta egongo da non zeharkako lerroak helburu bihurtuko diren).

8.1.– Tokiko ahalmenak indartzea eta kalteberatasuna murriztea, konektibitate-irizpideari jarraituz (zehaztu tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak zenbateraino erabiltzen diren; tokiko instituzio eta komunitate-erakundeak zenbateraino inplikatzeko diren eta horien eskura zer trebakuntza jarri den; adierazi azpiegitura eta zerbitzuak noiz arte jarraituko duten aurreikusitako ote den, baita ekintza humanitaria eta garapena uztartzeko estrategiarik aurreikusitako ote den ere).

8.2.– Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea (zer neurri zehatz hartu diren biztanleriaren parte-hartzea sustatzeko eta tokiko idiosinkrasiaren errespetua ziurtatzeko; biztanleriak proiektuko zer fasetan parte hartzen duen).

8.3.– Babesa, testigantza eta bake-eraikuntza (giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa babestu eta sustatzeko jarduerak, edo gatazka-testuinguruetan bakea eraikitzen laguntzen duten jarduerak).

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

8.4.– Genero-ekitatea (genero-desberdintasuna murrizteko edota emakumeen sendotzea areagotzeko estrategiak; estrategiak diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin eta parte hartzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala badagokio, ebaluazioarekin uztartzea).

8.5.– Jasangarritasun ekologikoa (jasangarritasun ekologikoa bultzatzeko estrategiak: balizko inpaktu negatiboak eta halakorik ez gertatzeko neurriak aztertzea, proiektutik kanpoko inpaktu negatiboak murriztea, teknologia egokia erabiltzea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea, tokiko gauzei eta kontsumo-ereduei eta abarri lehentasuna ematea; estrategiak diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin eta parte hartzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala badagokio, ebaluazioarekin uztartzea).

9.– PROIEKTUAREN JARRAIPENA (erakunde eskatzaileak eta tokiko erakundeak aurreikusitako jarraipen- eta ebaluazio-ekintzak, xede-biztanleriak proiektuaren jarraipenean parte hartzea).

10.– ATALEN ZERRENDA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

(**Oharra:** honako hauek aurkeztuko dira paperean: inprimakia, aurrekontua, plangintza-matrizea eta aurkeztu behar diren jatorrizko dokumentu guztiak edo kopia konpultsatuak. Gainerako dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztu ahal izango da).

Eskuineko zutabean, aurkeztu beharreko dokumentu-mota B batez adierazten da, bete beharrekoa bada, eta M batez, ordea, merezimendua bada.

1. ATALA – EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAE-KO ORDEZKARITZA		
1	EAEko erakunde eskatzailea ordeztzen duen pertsonak ordezkari-tza-ahalordea duela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik eman bada).	B
2	EAEko dagokion erregistroan inskripzioa egin izanaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
3	Estatutuen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo Agentzian lehenago aurkeztutakoetan aldaketarik eman bada).	B
4	Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitortpena, 7.e artikulua arabera	B
5	Zinpeko adierazpena, jatorrizkoa, honako hau dioena: onuradunari diru-laguntzak eta laguntzak emango zaizkio, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren organismo autonomoek ematen dituzten izaera bereko diru-laguntzen esparruan irekitako diru-laguntzak itzultzeko edo zigortzeko edozein prozedura bukatuta badago,	
6	Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
7	Deialdia EHAAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak zerga-betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
8	Deialdia EHAAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak gizarte-segurantzako betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B



2014ko urtarilaren 31, ostirala

9	Aurreko urteko kontuen balantzearen jatorrizko dokumentua, estatutuek baimendutako norbaitek sinatua.	B
10	Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen organigramaren kopia sinplea.	B
11	Euskal Autonomia Erkidegoan duen bazkide eta bolondres kopuruaren jatorrizko ziurtagiria.	B/M
12	Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak garapen-lankidetzako koordinakunde edo sare batekin atxikimendua eta/edo afiliazioa duela egiaztatzen duen jatorrizko ziurtagiria. Orobat, erakunde horrek jokabide-kodedun ekintza humanitario bati jarraitu diola eta jarraipen-batzordearen eskutik zehapenik ez duela jaso egiaztatu behar da.	M
13	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-laukia duena) non zehaztu behar baitira Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak azken urtean egindako ekintza humanitarioak.	M
14	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-laukia duena) non zehaztu behar baita nolako esperientzia etengabea duten arlo humanitarioan Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak: azken bost urteotan kudeatutako proiektuak, tokiko erakundeen izena eta zenbatekoa eurotan.	M
15	Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari buruz ezarritako Jokabide-Kodearekin Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sinatutako atxikimendu-adierazpena.	M
16	Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuei dagokienez, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek ezarritako Jokabide-Kodearekin Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sinatutako atxikimendu-adierazpena.	M
17	Partzuergoa bada, dagokion hitzarmenare fotokopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera. Gainera, partzuergoko erakundeetatik 1. puntutik 15.era bitartean aurkeztuko dira, betebeharrak edo merezimendu gisa.	B
18	Atzerrian diren langileen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-aurrekontratuaren edo lan-kontratuaren kopia sinplea aurkeztea, helmugako herrian ekintzak izango dituen ezaugarri bereziak zehazten dituen prestazioa egiteko akordio osagarriarekin batera.</li> <li>▪ Borondatezko lankidearen aseguru-konpromisoaren adierazpena, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru orokor kolektiboari atxikiz edo poliza bat sinatuz. Poliza horrek, nolana ere, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e) artikuluan biltzen diren gertakizunak bete beharko ditu.</li> <li>▪ Langileak bidaltzeko premia justifikatzen duen memoriaren kopia sinplea, eskatutako gaitasun- eta prestakuntza-irizpideak, egin beharreko lanak eta horien iraupena deskribatuz.</li> <li>▪ Akordio osagarriaren kopia sinplea.</li> </ul>	B
19	Hala badagokio, Genero Berdintasunerako Ekintza Planaren kopia sinplea, indarrean dagoenarena.	M
20	Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkariak iraunkorra badu, ordezkariak proiektuaren garapenari buruzko azalpen-txostena aurkeztu beharko du, ezarritako ereduari jarraikiz.	B
21	Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkariak badu, ordezkariak proiektuaren garapenari buruzko azalpen-txostena aurkeztu beharko du, ezarritako ereduari jarraikiz.	B
II. ATALA – BERTAKO BAZKIDEA		
1	EAEko dagokion erregistroan inskripzioa egin izanaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
2	Ez da aurkeztu erakunde eskatzailea ordeztzen duen pertsonak ordezkariak-ahalardea duela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik eman bada).	B
3	Estatutuen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo Agentzian lehenago aurkeztutakoetan aldaketarik eman bada).	B
4	Inolako zigoro- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko aitortzea, 10.e) artikuluan arabera.	B
5	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak zerga-betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
6	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak gizarte-segurantzako betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
7	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-koadroa duena), erakundeak arlo humanitarioan izan duen esperientzia iraunkorra zehazten duena: azken zortzi urtean kudeatutako proiektuak eta zenbatekoa (eurotan); proiektuaren xede-populazioarekin zenbat urtetako esperientzia duen (zehaztu kolektiboa eta eremu geografikoa); eta Euskadiko erakunde eskatzailearekin edo EAEko ordezkariarekin zenbat urtetako esperientzia duen eta zer proiektu egin dituzten elkarrekin.	M

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

8	Erakundearen organigramaren kopia sinplea.	B
9	Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena.	M
10	Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuei dagokienez, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena.	M
11	Partzuergoa bada, dagokion hitzarmenaren fotokopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera. Gainera, partzuergoko erakundeetatik 1. puntutik 10.era bitartean aurkeztuko dira, betebeharrak edo merezimendu gisa.	B
12	Hala badagokio, Plan Estrategikoaren kopia sinplea.	M
13	Hala badagokio, Genero berdintasunerako Ekintza Planaren kopia sinplea, indarrean dagoenarena.	M
III. ATALA – Kokapena:		
1	Proiektuaren kokapena zehazten duen maparen kopia sinplea.	B
IV. ATALA – Hondamendiaren testuingurua:		
1	Hondamendiaren testuinguruari buruzko informazioaren kopia sinplea (erabili aurkibide bat), hala nola kalteberatasun eta ahalmen azterketari buruzko informazioa.	M
V. ATALA – PLANGINTZA-MATRIZEA		
1	Proiektuaren plangintza-matrizearen dokumentuaren kopia sinplea, aurrekontu-deskribapena dakarrena.	B
VI. ATALA – AURREKONTUA		
1	Kontzeptuen, partiden eta kofinantzaizaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia sinplea, ezarritako formatuarekin bat etorritik.	B
2	Jardueren arabera banakatutako aurrekontuaren kopia sinplea, ezarritako formatuarekin bat etorritik.	B
3	Proforma fakturen, balorazioen eta egiaztapenen kopia sinplea.	B
4	Berezko funtsen iturri edo beste iturri batzuetatik lortutakoei buruzko dokumentazioaren kopia sinplea. Larrialdietarako laguntzen kasuan, kofinantzaketa ez da nahitaezkoa.	B
5	Hala badagokio, ordainagiriaren erabilerari buruzko txostenaren kopia sinplea, ezarritako formatuari jarraikiz.	B
VII. ATALA – BIDERAGARRITASUNA:		
1	Bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta erakunde-bideragarritasuna justifikatu eta egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia sinplea.	M

Buletinean argitaratu ondoren, [www.elankidetza.euskadi.net](http://www.elankidetza.euskadi.net) webgunean honako dokumentu hauek emango dira, eskabideak aurkezteko erabiliko direnak:

- 1.– Ordainagiriaren erabilerari buruzko azalpen-txostena.
- 2.– Atzerrian diren langileen azalpen-txostena.
- 3.– Erakunde eskatzaileak EAEn duen ordezkartza iraunkorraren azalpen-txostena.
- 4.– Erakunde eskatzaileak bertan duen ordezkartzaaren azalpen-txostena.
- 5.– Aurrekontu-eredua, partidaka, produktu-sailka eta kofinantzaizaileka antolatua.
- 6.– Aurrekontu-eredua, jardueraka antolatua.
- 7.– Erakunde eskatzaileen partzuergoaren hitzarmen-eredua.
- 8.– Tokiko Erakunde bazkideen partzuergoaren hitzarmen-eredua.

2014ko urtarilaren 31, ostirala

## 2.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTURA ORDAINDU BEHARREKO ESTRATEGIAK-EKINTZA HUMANITARIOAREN ESPARRUKO LAGUNTZEN FINANTZAZIO-LERROARENTZAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

Erakunde eskatzailea:

Proiektuaren izena:

Deialdia:

Data (uu/hh/ee):

Proiektu mota:

- Laguntza humanitarioa.
  - Errefuxiatuei eta lekualdatutako pertsoneri laguntza luzaroan ematea.
  - Hondamendiak arintzea.
  - Hondamendiei aurre egiteko prest izatea.
  - Gatazkei eta hondamendiei aurrea hartzea.
  - Hondamendi osteko errehabilitazio hasierakoa.

Jarduera-sektoreak:

- Babesa, aterpea, oinarrizko gauzak..
- Osasuna.
- Hezkuntza.
- Elikadura-segurtasuna.
- Jarduera ekonomikoak berrabiaraztea.
- Tokiko gaitasunak sendotzea.
- Ura eta saneamendua.
- Azpiegiturak berreraikitzea.
- Giza eskubideen aldeko jarduerak.

Markatu lauki hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jakinarazpenak jaso nahi badituzu eskabidean adierazitako helbide elektronikoan.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## INFORMAZIO OROKORRA - PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK:

Proiektuaren izenburua (hamar hitz gehienez):

Herrialdea / eremu geografikoa:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa / informazioa eranskinetako I. paragrafoan)

Partzuergoa bada, adierazi, lehenengo, zein den partzuergoaren burua, eta gero, zein diren partzuergoko gainerako erakundeak.

Helbidea / erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

IFZ:

Eratze-data:

Nortasun juridikoa:

EAEko pertsona ahalordeduna:

Kargua:

Sinadura, eskaeran duen erantzukizuna bere gain hartzen duena eta eranskinetan aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa dela ziurtatzen duena.

Harremanetarako pertsona (adierazi izena, telefonoa eta helbide elektronikoa):

Tokiko erakunde herrialde hartzailean (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa / informazioa eranskinetako II. paragrafoan)

Helbidea / erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

Eratze-data:

Nortasun juridikoa:

Pertsona ahalordeduna:

Kargua:

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## IRAUNALDIA

Hasteko aurreikusitako data (uu/hh/ee):

Bukatzeko aurreikusitako data (uu/hh/ee):

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

## FINANTZAKETA, GUZTIRA

Guztizko kostua:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako ekarpena:

(\*) Partzuergoa bada (erakunde eskatzailearen atalean), adierazi zenbateko diru-laguntza eskatu zaion Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari, diru hori partzuergoko erakunde bakoitzak kudeatu beharko baitu.

- Partzuergoko burua den erakundeak kudeatzeko eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan):
- Lerro bat sartzea partzuergoko buru ez den erakunde bakoitzeko, kudeatzeko eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazita (eurotan).

Tokiko moneta euroen truke aldatzeko erabilitako kanbio-mota:

Emandako edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

	Onartuta/eskuragarria	Eskatuta
Euskadiko erakunde eskatzailea:		
Tokiko gizarte-erakundea:		
Xede-biztanleria:		
Beste ekarpen batzuk (sartu lerro bat kofinantzaketa-iturri bakoitzeko).		

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## ARGIBIDE TEKNIKOAK:

- 1.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (deskribatu, 5-10 lerrotan, proiektuaren edukia, daturik garrantzitsuenak adierazita).

- 2.– KOKAPEN ZEHATZA (erantsi eskualdeko mapa III. atalean, eta zehaztu proiektuaren kokapena).

- 3.– HONDAMENDIAREN TESTUINGURUAREN BALORAZIOA (erantsi eranskinetako IV. atalari informazio gehigarria).

- 3.1.– Hondamendiaren aurreko testuingurua (adierazi, besteak beste, esparru geografikoa, biztanleria, ezaugarri ekonomikoak, sozialak, kulturalak...).

- 3.2.– Hondamendi naturala, gatazka armatua edo hondamendia eragin duten beste kausa batzuk identifikatzea.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

3.3.– Krisiak eragindako inpaktua eta beharrak ebaluatzea, baita tokiko baliabideen eta egituren kalteberatasuna ere, kalteberatasunari eta ahalmenari buruzko azterketa edo baliaturiko bestelako tresnak erantsita (kalteberatasunari eta ahalmenari buruzko azterketa ez da hain garrantzitsua larrialdiko laguntzen kasuan). Herrialdearen edo eskualdearen ohiko adierazleei dagokienez, adierazle espezifikoak aurkeztu beharko dira

--

3.4.– Herrialdean edo eskualdean, erakunde eskatzailearen alde aurretiko esperientzia edo presentzia: ekimenaren jatorria esplikatuz; erakunde eskatzaileak eta tokiko bazkideak alde aurretik egindako proiektuak zehaztea; aditzera eman ea epe luzearako planifikaziorik dagoen edo ea antzeko proiektu edo ekimenik dagoen eta, baiezkoa bada, zein koordinazio-mekanismo aurreikusten diren.

--

#### 4.– XEDE-BIZTANLERIA.

4.1.– Xede-biztanleriaren identifikazioa (sexuaren, kopuruaren, gizarte-mailaren, etniaren eta abarren arabera bereizketa egin da).

Kokapena	Emakumeen kopurua	Gizonen kopurua	Pertsonak, guztira

4.2.– Xede-biztanleria aukeratzeko irizpideak. Behar izanez gero, deskribatu gizon eta emakumeen arteko banaketa zuzena sustatzeko ekintza positiboak.

4.3.– Proiektuaren zein fasetan eta nola hartzen duen parte xede-biztanleriak. Arreta berezia eskainiko zaio emakumeek proiektuan duten parte-hartzeari.

#### 5.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA

Hurrengo azpi-ataletan ondo azaldu proiektuaren nondik norakoak, honako hauek justifikatuz: giza baliabideen eta baliabide tekniko eta/edo materialen erabilera; aurreikusitako jardueren gauzatzea; emaitzen lorpena; proiektuaren berariazko xedearen lorpena; xede orokorra lortzeko laguntza.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

V. atalari Proiektuaren Planifikazio Matrizea (PPM) erantsiko zaio. PPM horretan, labur-labur azalduko dira kontzeptu horiek, adierazleekin, egiaztapen-iturriekin, hipotesiekin eta kanpoko faktoreekin batera.

5.1.– Helburu orokorra (deskribatu, proiektua gauzatzeko, lortu nahi den helburu zabalena).

5.2.– Proiektuaren helburu espezifikoa.

5.2.1.– Proiektuaren helburu espezifikoa (adierazi zein den xede-biztanlerian lortu nahi den eragin positiboa, hondamendiaren balorazioan zehaztutako oinarritzko arazoak ebazteko).

5.2.2.– Helburu espezifikoaren betetze-mailaren adierazleak (prozesu eta inpaktuko adierazle zehatzak deskribatuko dira, kantitateari edo kualitateari, denborari eta biztanleria onuradunari dagozkien datuekin, helburu espezifikoa lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berriazko egoeran, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanetan).

Puntu hori ez da egokia larrialdi-laguntzako proiektuetarako.

5.2.3.– Adierazleak egiaztatzeko iturriak (adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer iturri baliatzen diren zehaztuko da: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

5.2.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (deskribatu aintzat hartu beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuaren arrakastan eragin erabakigarria izan badezakete). Proiektuaren mesederako direnak aipatu behar dira.

5.3.– Aurreikusitako emaitzak.

5.3.1.– Espero diren emaitzak (zehatz-mehatz deskribatuko dira proiektua gauzatzean lortuko diren produktuak eta zerbitzuak; produktu eta zerbitzu horiek egindako jardueren ondoriozkoak dira eta helburu espezifikoa lortzen lagunduko dute).



2014ko urtarilaren 31, ostirala

5.3.2.– Emaizen betetze-mailaren adierazleak (prozesu eta inpaktuko adierazle zehatzak deskribatuko dira, kantitateari edo kalitateari, denborari eta biztanleria onuradunari dagozkien datuekin, aurreikusitako emaitzak lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanetan).

5.3.3.– Adierazleak egiaztatzeko bideak (adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer adierazle baliatzen diren zehaztuko da: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

5.3.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (emaitzak lortu eta gero, berariazko helburura iristeko beharrezkoak diren proiektuaz kanpoko baldintzak deskribatuko dira).

5.4.– Aurreikusitako jardueren zerrenda (deskribatu emaitzak lortzeko aurreikusi diren jarduerak, eta adierazi ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta materialak. Eranskinetako VI. atalean, aurrekontua jarri behar da, jardueraka banakatua).

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

6.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAZIOA. KONFINANTZATZAILEEN ARABERAKO BANAKETA (eranskinetako VI. atalean, aurrekontu-partida bakoitzerako aurreikusitako kostuaren banaketa zehaztutako da, kofinantzatzaileak aipatuz. Gainera, jardueraren arabera antolatutako aurrekontu bat ere aurkeztuko da eranskinetan).

PARTIDAK	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.	Euskadiko erakunde eskatzailea (*)	Tokiko erakundea eta xede-populazioa (*)	Beste ekarpen batzuk (*)	GUZTIZKOA
ZUZENEKO KOSTUAK					
A.I.- Materiala erostea, garraiatzea, biltegitratzea eta kudeatzea, oinarriko ondasunak eta zerbitzuak homitzera bideratuak.					
A.II.- Materialak erostea, garraiatzea, biltegitratzea eta kudeatzea, proiektua exekutatzeko beharrezko direnak.					
A.III.- Giza baliabideak, tokikoak nahiz atzerriaratuak, eta horien bidaia-gastuak.					
A.IV.- Proiektuari lotutako langileen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, giza baliabideak eta ekipamendua.					
A.V.- Egoera ahulean daudenen zako laguntza, diru-ekarpenetan, bonoetan edo lanaren truke soldata ordainduta.					
A.VI.- Giza eskubideak defendatzeko edo lekukotasuna emateko egiten diren lanak edo txostenak lantzeko eta ezagutarazteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak.					
ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA					
ZEHARKAKO KOSTUAK					
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak			Ezin da.	Ezin da.	
ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA					
GUZTIZKO OROKORRA, EUROTAN					
Guztizko kostuen gaineko ehunekoa					

(\*) Larrialdian laguntzeko proiektuen kasuan, ez da kofinantziaziorik eskatuko. Zentzu zabalean ekitza humanitariokoak diren proiektuetan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako diru-laguntza proiekturako onartutako aurrekontu guztiaren % 80 izango da.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

7.- BIDERAGARRITASUN-AZTERLANA (kanpoko laguntza bukatuagatik proiektuak etorkizunean ere jarraipena izango duela bermatzen duten faktoreak; eranskinetako VII. atalari erantsi behar diren laguntzeko dokumentuak).

7.1.- Abiarazitako ekintzen bideragarritasun teknikoa (dauden giza baliabideak, baliabide materialak eta metodologikoak). Bideragarritasuna sendotzen duten azterlanak eta analisiak: prestakuntza-planak, ikas-materialak, langileen profila eta egokitasuna, administrazio-lizentziak, ikerketak, eta abar).

7.2.- Erakundeen bideragarritasuna (toki-erakundeen jarrera: proiektuan parte hartzen duten edo abalen bitartez bultzatzen duten; tokiko politikak sektorean; erakundeen ahalmen teknikoak; administrazio-neurriak hartzea, hala nola baimenak eskatzea; erakunde eskatzailearen edo tokiko erakundearen eta tokiko edo nazioarteko agintari eta agentzien arteko koordinazioa).

7.3.- Segurtasuna (adierazi proiekturako idatzita dauden segurtasun-arauak eta segurtasun-prozedurak, eta zehaztu zein diren. Aipatu han bertan ari diren langileek ba ote duten arau eta prozedura horien berri, eta segurtasunaren inguruko prestakuntzarik ba ote duten. Adierazi ebakuazio-planik baden, segurtasun ezaren arazoren bat, edo osasun-arazoren bat sortuz gero).

8.- PROIEKTUAREN ZEHARKAKO LERROAK (abiarazten diren ekintzetan sartu behar diren analisiaren aldagaiak. Edozein estrategiatan sartu beharko dira, analisia eta diagnostikoa egiten diren unetik ebaluazioa egin arte. Sartze horren maila testuinguruaren, xede-populazioaren egoeraren eta proiektu-motaren arabera aldatu ahal izango da, baina epe luzeko proiektu estrategiko batean sartuta egongo da non zeharkako lerroak helburu bihurtuko diren).

8.1.- Tokiko ahalmenak indartzea eta kalteberatasuna murriztea, konektibitate-irizpideari jarraituz (zehaztu tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak zenbateraino erabiltzen diren; tokiko instituzio eta komunitate-erakundeak zenbateraino inplikitzen diren eta horien eskura zer trebakuntza jarri den; adierazi azpiegitura eta zerbitzuak noiz arte jarraituko duten aurreikusi ote den, baita ekintza humanitarioa eta garapena uztartzeko estrategiarik aurreikusi ote den ere).

8.2.- Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea (zer neurri zehatz hartu diren biztanleriaren parte-hartzea sustatzeko eta tokiko idiosinkrasiaren errespetua ziurtatzeko; biztanleriak proiektuko zer fasetan parte hartzen duen).

8.3.- Babesa, testigantza eta bake-eraikuntza (giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa babestu eta sustatzeko jarduerak, edo gatazka-testuinguruetan bakea eraikitzen laguntzen duten jarduerak).

8.4.- Genero-ekitatea (genero-desberdintasuna murrizteko edota emakumeen sendotzea areagotzeko estrategiak; estrategiak diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin eta parte hartzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala badagokio, ebaluazioarekin uztartzea).

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

8.5.– Jasangarritasun ekologikoa (jasangarritasun ekologikoa bultzatzeko estrategiak: balizko inpaktu negatiboak eta halakorik ez gertatzeko neurriak aztertzea, proiektutik kanpoko inpaktu negatiboak murriztea, teknologia egokia erabiltzea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea, tokiko gauzei eta kontsumo-ereduei eta abarri lehentasuna ematea; estrategiak diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin eta parte hartzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala badagokio, ebaluazioarekin uztartzea).

9.– PROIEKTUAREN JARRAIPENA (erakunde eskatzaileak eta tokiko erakundeak aurreikusitako jarraipen- eta ebaluazio-ekintzak, xede-biztanleriak proiektuaren jarraipenean parte hartzea).

10.– ATALEN ZERRENDA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

(Oharra: honako hauek aurkeztuko dira paperean: inprimakia, aurrekontua, plangintza-matrizea eta aurkeztu behar diren jatorrizko dokumentu guztiak edo kopia konpultsatuak. Gainerako dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztu ahal izango da).

Eskuineko zutabean, aurkeztu beharreko dokumentu-mota B batez adierazten da, bete beharrekoa bada, eta M batez, ordea, merezimendua bada.

1. ATALA – EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAE-KO ORDEZKARITZA		
1	EAEko erakunde eskatzailea ordeztzen duen pertsonak ordezkartza-ahalordea duela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordeztze ari den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik eman bada).	B
2	EAEko dagokion erregistroan inskripzioa egin izanaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
3	Estatutuen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordeztze ari den lehen aldia bada edo Agentzian lehenago aurkeztutakoetan aldaketarik eman bada).	B
4	Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena, 7.e artikulua araberak	B
5	Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
6	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak zerga-betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
7	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak gizarte-segurantzako betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
8	Aurreko urteko kontuen balantzearen jatorrizko dokumentua, estatutuek baimendutako norbaitek sinatua.	B
9	Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen organigramaren kopia sinplea.	B
10	Euskal Autonomia Erkidegoan duen bazkide eta bolondres kopuruaren jatorrizko ziurtagiria.	B/M
11	Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkartzak garapen-lankidetzako koordinakunde edo sare batekin atxikimendua eta/edo afiliazioa duela egiaztatzen duen jatorrizko ziurtagiria. Orobat, erakunde horrek jokabide-kodedun ekintza humanitario bati jarraitu diola eta jarraipen-batzordearen eskutik zehapenik ez duela jaso egiaztatu behar da.	M
12	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-koadroa duena) non zehaztu behar baitira Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkartzak azken urtean egindako ekintza humanitarioak.	M

2014ko urtarilaren 31, ostirala

13	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-koadroa duena) non zehaztu behar baita nolako esperientzia etengabea duten arlo humanitarioan Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak: azken bost urteotan kudeatutako proiektuak, tokiko erakundeen izena eta zenbatekoa eurotan.	M
14	Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari buruz ezarritako Jokabide-Kodearekin Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sinatutako atxikimendu-adierazpena.	M
15	Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuei dagokienez, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek ezarritako Jokabide-Kodearekin Euskadiko erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak sinatutako atxikimendu-adierazpena.	M
16	Partzuergoa bada, dagokion hitzarmenaren fotokopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera. Gainera, partzuergoko erakundeetatik 1. puntutik 15.era bitartean aurkeztuko dira, betebeharrak edo merezimendu gisa.	B
17	Atzerrian diren langileen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan-aurrekontratuaren edo lan-kontratuaren kopia sinplea aurkeztea, helmugako herrian ekintzak izango dituen ezaugarri bereziak zehazten dituen prestazioa egiteko akordio osagarriarekin batera.</li> <li>▪ Borondatezko lankidearen aseguru-konpromisoaren adierazpena, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru orokor kolektiboari atxikiz edo poliza bat sinatuz. Poliza horrek, nolahi ere, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e) artikuluan biltzen diren gertakizunak bete beharko ditu.</li> <li>▪ Langileak bidaltzeko premia justifikatzen duen memoriaren kopia sinplea, eskatutako gaitasun- eta prestakuntza-irizpideak, egin beharreko lanak eta horien iraupena deskribatuz.</li> <li>▪ Akordio osagarriaren kopia sinplea.</li> </ul>	B
18	Ekintza Humanitarioaren Plan Estrategikoaren kopia sinplea.	B/M
19	Hala badagokio, Genero Berdintasunerako Ekintza Planaren kopia sinplea, indarrean dagoenarena.	M
20	Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkariak iraunkorra badu, ordezkariak proiektuaren garapenari buruzko azalpen-txostena aurkeztu beharko du, ezarritako ereduari jarraituz.	B
21	Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkariak badu, ordezkariak proiektuaren garapenari buruzko azalpen-txostena aurkeztu beharko du, ezarritako ereduari jarraituz.	B
<b>II. ATALA – BERTAKO BAZKIDEA</b>		
1	EAEko dagokion erregistroan inskripzioa egin izanaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua/konpultsatua.	B
2	Ez da aurkeztu erakunde eskatzailea ordeztzen duen pertsonak ordezkari-ahalordea duela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik eman bada).	B
3	Estatutuen jatorrizko agiria edo fotokopia kautotua/konpultsatua (erakunde eskatzailearen ordezkari den lehen aldia bada edo Agentzian lehenago aurkeztutakoetan aldaketarik eman bada).	B
4	Inolako zigoro- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitortzea, 10.e) artikulua arabera.	B
5	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak zerga-betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
6	Deialdia EHAAn argitaratu eta gero emandako ziurtagiria, interesdunak gizarte-segurantzako betebeharrak egunean dituela esaten duena.	B
7	Dokumentuaren kopia sinplea (laburpen-koadroa duena), erakundeak arlo humanitarioan izan duen esperientzia iraunkorra zehazten duena: azken zortzi urtean kudeatutako proiektuak eta zenbatekoa (eurotan); proiektuaren xede-populazioarekin zenbat urtetako esperientzia duen (zehaztu kolektiboa eta eremu geografikoa); eta Euskadiko erakunde eskatzailearekin edo EAEko ordezkariarekin zenbat urtetako esperientzia duen eta zer proiektu egin dituzten elkarrekin.	M
8	Erakundearen organigramaren kopia sinplea.	B
9	Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena.	M
10	Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuei dagokienez, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena.	M

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

11	Partzuergoa bada, dagokion hitzarmenaren fotokopia sinplea, ezarritako ereduaren arabera. Gainera, partzuergoko erakundeetatik 1. puntutik 10.era bitartean aurkeztuko dira, betebeharrak edo merezimendu gisa.	B
12	Hala badagokio, Plan Estrategikoaren kopia sinplea.	M
13	Hala badagokio, Genero berdintasunerako Ekintza Planaren kopia sinplea, indarrean dagoenarena.	M
III. ATALA – Kokapena:		
1	Proiektuaren kokapena zehazten duen maparen kopia sinplea.	B
IV. ATALA – Hondamendiaren testuingurua:		
1	Hondamendiaren testuinguruari buruzko informazioaren kopia sinplea (erabili aurkibide bat), hala nola kalteberatasun eta ahalmen azterketari buruzko informazioa.	M
V. ATALA – PLANGINTZA-MATRIZEA		
1	Proiektuaren plangintza-matrizearen dokumentuaren kopia sinplea, aurrekontu-deskribapena dakarrena.	B
VI. ATALA – AURREKONTUA		
1	Kontzeptuen, partiden eta kofinantzaizaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia sinplea, ezarritako formatuarekin bat etorritik.	B
2	Jardueren arabera banakatutako aurrekontuaren kopia sinplea, ezarritako formatuarekin bat etorritik.	B
3	Proforma fakturen, balorazioen eta egiaztapenen kopia sinplea.	B
4	Berezko funtsen iturriei edo beste iturri batzuetatik lortutakoei buruzko dokumentazioaren kopia sinplea.	B
5	Hala badagokio, ordainagirien erabilerari buruzko txostenaren kopia sinplea, ezarritako formatuari jarraikiz.	B
VII. ATALA – BIDERAGARRITASUNA:		
1	Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta erakunde-bideragarritasuna justifikatu eta egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia sinplea.	M

Buletinean argitaratu ondoren, [www.elankidetz.euskadi.net](http://www.elankidetz.euskadi.net) webgunean honako dokumentu hauek emango dira, eskabideak aurkezteko erabiliko direnak:

- 1.– Ordainagirien erabilerari buruzko azalpen-txostena.
- 2.– Atzerrian diren langileen azalpen-txostena.
- 3.– Erakunde eskatzaileak EAEn duen ordezkari iraukorraren azalpen-txostena.
- 4.– Erakunde eskatzaileak bertan duen ordezkariaren azalpen-txostena.
- 5.– Aurrekontu-eredua, partidaka, produktu-sailka eta kofinantzaizaileka antolatua.
- 6.– Aurrekontu-eredua, jardueraka antolatua.
- 7.– Erakunde eskatzaileen partzuergoaren hitzarmen-eredua.
- 8.– Tokiko Erakunde bazkideen partzuergoaren hitzarmen-eredua.
- 9.– Formulazioan erabili beharreko kanbio-tasen zerrenda.

Gainera, honako eredu hau ere emango da, diru-laguntza onartzen bada bete beharko dena:

- 1.– Erakunde eskatzailearen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren arteko hitzarmenaren eredu.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## II. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK  
SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN EREDUA

## EKINTZA HUMANITARIOAREN ESPARRUKO ESTRATEGIAK

Vitoria-Gasteiz, 2014ko .....ren .....(a)

## BERTARATU DIRA:

Batetik ....., (hemendik aurrera erakunde esleipenduna deituko diogu),  
IFZ: ....., Ordezkaria: ....., erakunde esleipendunaren  
lege-ordezkaria den aldetik eta

Bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (hemendik aurrera GLEA  
deituko diogu), Ordezkaria: ....., bere zuzendaria den aldetik,

## ADIERAZTEN DUTE:

Elkarri aitortzen diotela ordezkaritza-ahalmena dutela, eta indarreko zat jotzen dutela  
ahalmen hori, baita baterako finantzaziorako hitzarmen hau sinatzeko behar besteko  
lege-ahalmena dutela ere. Hori guztia dela-eta, hitzarmena honako klausula hauen  
arabera gauzatzea erabaki dute:

## KLAUSULAK

**Lehenengoa.**– Hitzarmen hau garapenerako lankidetzaren proiektu hau  
kofinantzatzeaz baino ez da: «proiektuaren izena» (espediente-zenbakia: .....).

**Bigarrena.**– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ..... euro ordainduko  
ditu, bi ordainketatan.

1. ordainketa:

2. ordainketa:

**Hirugarrena.**– Erakunde esleipendunak jakinarazten du proiektuaren benetako  
hasiera-eguna (hasiera-eguna idatzi) izango dela. Era berean, bukaera-eguna (idatzi  
bukaera-eguna) izango da.

**Laugarrena.**– Erakundearen izena:

– Hitzarmen hau eta indarrean dauden legeak beteko ditu, hala xedatuta baitago  
Garapenerako lankidetzaren konturako 2014ko ekintza humanitarioak ordaintzeko  
laguntzetarako deialdia egiten duen 2014ko .....aren ..... ko  
Ebazpena (2014ko .....aren .....ko EHAA).

– Jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu, protokolo narratibo-finantzarioari jarraikiz,  
eta protokolo horretan emandako argibideen arabera. Lehen txostenak aurrekontu  
osoaren % 30 justifikatuko du gutxienez eta 2. ordainketa eskatzerakoan  
aurkeztuko du; azken txostena, berriz, proiektuaren aurrekontua gauzatu ondoko  
lau hilabeteen barruan.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari proiektua funtsean alda dezala eskatuko dio, honako aldaketa hauetakoren bat egin nahi izanez gero:
  - + Xede-biztanleriaren kopurua aldatzea, aurrekontu-ondorioak edozein izanik ere.
  - + Proiektuaren kokapenean edozein aldaketa egitea.
  - + Tokiko erakundea aldatzea.
  - + Aurrekontua gauzatzeko epea aldatzea.
  - + Egin beharreko gastuen aldaketa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari dagokion partidaren zenbatekoaren % 10etik gorakoa. Baliteke % 10etik gorako gaingastu bat izatea, baita % 10etik gorako saldo bat ere (gastatu gabeko zenbateko bat).
  - + Helburua eta emaitzak aldatzea.
- Jarraipen-txostenetan gertatzen diren aldaketen berri emango du, nahiz aldaketa horiek funtsezkoak izan ez.

**Bosgarrena.**– Erakunde esleipendunak kontu espezifiko gisa baliatuko du banku-kontua (kontu-zenbakia, eta banku-erakundearen izena eta helbidea), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ordainketa bakoitzean transferitutako diru-kopurua berariazko kontu horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako fondo-mugimendurik egin.

**Seigarrena.**– Erakunde esleipendunak jakinarazten du toki-erakundeak (toki-erakundearen izena) edo erakunde esleipendunak betearazpen-herrialdean duen ordezkariak erabiliko duela banku-kontua (kontua identifikatzeko beharrezko datu guztiak idatzi beharko dira -bete, lehenengo ordainketaren izapidetzeari ekiteko, eta, behar izanez gero, alda daiteke. Adierazi, baita ere, banku-erakundearen izena eta helbidea), proiektuaren kokapen-herrian dagoen kontu berezizat hartuta; kontu horren bidez kudeatuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau. Erakunde esleipendunetik transferitutako diru-kopuruak tokiko erakundearen berariazko kontura transferituko dira, beharrezkoa izango den dibisan, eurotan bidaltzea komeni ez bada.

**Zazpigarrena.**– Erakunde esleipendunak zuhurtzia handiz erabili behar ditu funts horiek, hau da, proiektuaren helburuak lortzearren bakarrik erabili behar ditu, ahalik eta ondoen erabili ere. Tokira egin beharreko transferentzia zatitzen bada edo aurretiaz ezaguna den bolada batez ezinbestean atzeratzen bada, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeaketa hobetzeko jasotako funtsak inbertitu ahal izango dira. Funtsak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago. Honako baldintza hauek gertatzen badira bakarrik onartzen da funtsak inbertitzea:

- Arrazoi batek justifikatzen badu dirua tokira transferitu ezin izatea.
- Aldez aurretik badakigu arrazoi horrek zenbat iraungo duen.
- Inbertsioak ez badakar diru-laguntza entitate esleipendunak kontrolatu ezin ditzakeen kanpo-faktoreen eraginpean jartzea.
- Inbertsioa bermatuta badago, hau da, inbertitutako diru-kopurua murrizterik ez dago.



2014ko urtarrilaren 31, ostirala

**Zortzigarrena.**– Erakunde esleipendunak egoitzako eta helmugako kontu espezifikoean sortutako interesak proiektuaren zuzeneko kostuen partidetan aplikatuko ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekarpentzat hartuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea partida batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, finantza-txostenean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargurako kontusailetik/etatik lortutako interesak jaso dira; betiere agentzia horrek bere gastua kontu horiei egotzi badie.

**Bederatzigarrena.**– Edonola ere, proiektua gauzatzeko epea amaitu aurretik transferitu behar ditu erakundeak funtsak helmugara.

**Hamargarrena.**– Bere txostenetarik bakoitzean, erakunde esleipendunak, egotzitako diru-kopuruaren egiaztagiria aurkeztuko ditu. Agiri horiek jatorrizko agirien fotokopiak izango dira. Jatorrizko agiri horiek aurretik bideratu beharko dira, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako gastuak badira; beste kofinantzaileen kasuan, berriz, fotokopia sinpleak izango dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza egiaztatzen duten agirien eginbidea zigilu bat da, eta zigilu horretan proiektuaren izena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izena eta deialdiaren urtea adieraziko dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta beste kofinantzaileen konturako gastuak justifikatzen dituzten agirietan, eginbidearekin batera Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egozten zaion zenbatekoa adierazi beharko da. Dokumentu horiei guztiei dagokienez, erakunde esleipendunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, originalak non dauden adieraziz eta benetako kopiak direla berretsiz. Orobat, jatorrizko agiriak bost urtez gorde beharko ditu, eta aldi horretan agiri horiek osorik edo zati batean erakusteko eskatu ahal izango du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, emandako kopiekin alderatzeko asmoz.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Erakunde esleipenduna  
Agentzia

Izpta.: .....

Garapenerako Lankidetzaren Euskal  
Agentziako zuzendaria

Izpta.: Erakundearen legezko ordezkaria  
Betetzen duen kargua

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

## III. ERANSKINA

## HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

1.– ETENGABEKO FINANTZAKETA-LINEAKO PROIEKTUEI APLIKATU BEHARRE-KO HAUTAKETA IRIZPIDEAK.

I.– PROIEKTUAREN EDUKIAREN ARABERA: 70 puntu.

1.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 24 puntu.

1.1.– Proiektuaren egokitasuna hondamendiek kalteturiko pertsonentzako babesari eta laguntzari dagokienez: gehienez ere 2 puntu.

1.2.– Hondamendiaren testuinguruaren balorazioa: gehienez ere 10 puntu.

1.3.– Helburuen, emaitzen eta aurreikusitako jardueren arteko koherentzia: gehienez 2 puntu.

- 2 puntu, helburu espezifikoa lortzeko behar diren elementuekiko koherentea den esku-hartze logika bat badu proiektuak.

- Puntu 1, esku-hartze logikak akatsak baditu.

1.4.– Jardueren eta jarduera horiek gauzatzeko baliabideen arteko harremana: gehienez ere 4 puntu.

- 3 puntu, jarduerak, baliabideak eta kostuak guztiz zehazturik badaude eta koherentzia badago esku-hartzearen logikaren eta aurrekontuaren artean.

- 2 puntu, banakatzea osoa ez bada edo esku-hartzearen logikaren eta aurrekontuaren artean proportziorik ez bada.

- Puntu bat gehiago, jarduerak behar bezala deskribatuta baldin badaude.

1.5.– Jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta ebaluagarriak. Gehienez ere 6 puntu.

- 6 puntu, helburu espezifikoari eta espero diren emaitzei dagokienez, adierazle zehatz eta egiaztagarriak ezartzen badira. Larrialdietarako laguntza-proiektuetan aski izango da emaitzen adierazleekin.

- 3 puntu, baldin eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira.

- Puntu 1, adierazleak eta egiaztatzeko iturriak nahikoak izanda ere, alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

2.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 14 puntu.

2.1.– Bideragarritasun teknikoa: gehienez ere 8 puntu.

- 7 puntu, proiektua gauzatzeko erabili behar diren baliabide teknikoei buruz (planoak, bitarteko materialak eta pertsonalak...), eta, hala badagokio, azterlan ekonomikoei buruz behar adina informazio aurkezten bada.
- 2 puntu, baliabideei buruzko informazioa osatugabea bada.
- Puntu 1 gehiago, proiektuaren barnean hartutako langileen eta ondasunen segurtasun-baldintzak kontuan hartzen badira, bereziki testuinguru ezegonkor edo gatazkatsuetan (segurtasun-protokolo idatzia izatea, langileei informazioa eta prestakuntza eskaintzea eta abar).

2.2.– Erakunde-bideragarritasuna: gehienez ere 6 puntu.

- 3 puntu, proiektuaren exekuzioan erakunde esanguratsu batek parte hartzen badu, eta horrek proiektuaren guztizko aurrekontuari % 5etik gorako aurrekontu-ekarpena egiten badio.
- Puntu 1, ordezkaritza-erakunde baten abalak proiektua babesten badu, edo proiektua egiteko beharrezko administrazio-neurriak hartu badira.
- 3 puntu gehiago, tokiko bazkideen, tokiko eta nazioarteko GKEen, agintarien eta/edo aldebiko agentzia edo agentzia multilateralen arteko koordinazio-mekanismo batean parte hartzen bada.

3.– 3 puntu gehienez ere, egoera ahulean dauden kolektiboek lehenetsua ematea.

- 3 puntu, krisi humanitario baten eraginpeko biztanleria hautatzeko irizpide argi batzuk ezartzen badira.
- Puntu 1, hautaketa-irizpideak argiak ez badira, edo eraginpeko biztanleriaren barnean, krisi humanitario batek kalteturiko pertsonak ez ezik, beste pertsona batzuk ere hartzen badira.

4.– Lehenetspen geografikoa: gehienez ere 4 puntu.

- 4 puntu, estaturik gabeko herria edo herrialde indigena bada, herrialdearen edo eskualdearen GGla 0,5etik azpikoa bada, edo EBk identifikaturiko krisi ahaztuetako bat bada.
- 3 puntu, GGla 0,5etik 0,599ra bitartekoa bada.
- 2 puntu, GGla 0,6tik 0,699ra bitartekoa bada.
- Puntu 1, GGla 0,7tik 0,799ra bitartekoa bada.

5.– Zeharlerroak: gehienez ere 23 puntu.

- 5.1.– Konektibitate-irizpideekin ahultasun-egoera murriztea eta tokiko gaitasunak sendotzea: gehienez ere 6 puntu.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

5.2.– Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea: gehienez ere 5 puntu.

5.3.– Babesa, testigantza eta bake-eraikuntza: gehienez ere 5 puntu.

5.4.– Genero-ekitatea: gehienez ere 5 puntu.

5.5.– Jasangarritasun ekologikoa: gehienez ere 2 puntu.

6.– Partzuergoak: gehienez ere 2 puntu.

– Puntu 1, proiektua euskal erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzaten badu.

– Puntu 1, proiektua toki-erakundeen partzuergo batek elkarlanerako programa baten barruan gauzaten badu.

## II.– TOKIKO ERAKUNDEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLOAK: 16 PUNTU.

1.– Esperientzia: gehienez ere 3 puntu.

– 3 puntu, legez eratu zenetik gutxienez 8 urte igaro badira eskabidea aurkezten den egunean, eta sektore humanitarioan esperientzia iraunkorra egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.

– Puntu 1, legez eratu zenetik gutxienez 8 urte igaro badira eskabidea aurkezten den egunean, eta sektore humanitarioan aldizkako esperientzia egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez ere 2 puntu.

– 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabidea aurkezten den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago.

– Puntu bat, erakundeak, azken bost urteetan (eskabidea aurkezten den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

3.– Tokiko erakundeak xede-biztanleriarekin duen harremana: gehienez 4 puntu.

– 4 puntu, tokiko erakundeak, eskabidea aurkezten den egunean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-biztanleriarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

– 2 puntu, tokiko erakundeak, eskabidea aurkezten den egunean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-biztanleriarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

4.– Tokiko erakundeak xede-biztanleriarekin duen harremana: gehienez ere 4 puntu.

- 4 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak berariaz barne hartzen badu xede-biztanleria.
- 2 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak orokorrean barne hartzen badu xede-biztanleria.

5.– Printzipio eta estandar humanitarioekiko atxikimendua: gehienez ere 2 puntu.

- Puntu 1, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
- Puntu 1 gehiago, Hirugarren Munduari buruzko irudiei eta mezuei lotutako jokabide-kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.

6.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez ere puntu 1.

- Puntu bat, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

### III.– EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAE-KO ORDEZKARITZA 14 PUNTU.

1.– EAEko gizarte-oinarria: gehienez ere 4 puntu.

- Puntu 1, 200 bazkide baino gehiago baditu.
- Puntu 1, 10 bolondres baino gehiago baditu.
- Puntu 1, azken urtean ekintza humanitarioari buruzko hiru sentsibilizazio-ekintzatik gora egin baditu.
- Puntu 1, portaera-kodea duen lankidetzaren koordinakunde edo sareren batean badago eta bere jarraipen-batzordeak zehaturik ez badago.

2.– Esperientzia: gehienez ere 2 puntu.

- 2 puntu, legez eratu zenetik 5 urte edo gehiago igaro badira eta sektore humanitarioan esperientzi egonkorra egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.

3.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez ere 2 puntu.

- 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabidea aurkezten den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzaren laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago.
- Puntu bat, erakundeak, azken bost urteetan (eskabidea aurkezten den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzaren laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

- 4.– Tokiko gizarte-erakundearekiko harremana eta esperientzia eremuan: gehienez ere 3 puntu.
- 3 puntu, erakunde eskatzaileak, eskabidea aurkezten den egunean, bost urte baino gehiagoko esperientzia badu tokiko gizarte-erakundearekin, elkarrekin proiektuak kudeatzen.
- 5.– Printzipio eta estandar humanitarioekiko atxikimendua: gehienez ere 2 puntu.
- Puntu 1, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
  - Puntu 1 gehiago, Hirugarren Munduari buruzko irudiei eta mezuei lotutako jokabide-kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
- 6.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez ere puntu 1.
- Puntu bat, erakunde eskatzaileak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

2.– EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIA MARKOETARAKO FINANTZAKETA-LINEAKO PROIEKTUEI APLIKATU BEHARREKO HAUTAKETA IRIZPIDEAK.

I.– PROIEKTUAREN EDUKIAREN ARABERA: 70 PUNTU.

1.– Proiektuaren koherentzia orokorra: gehienez ere 27 puntu.

1.1.– Proiektuaren egokitasuna hondamendiek kalteturiko pertsonentzako babesari eta laguntzari dagokienez: gehienez ere 2 puntu.

1.2.– Hondamendiaren testuinguruaren balorazioa: gehienez ere 8 puntu.

1.3.– Helburuen, emaitzen eta aurreikusitako jardueren arteko koherentzia: gehienez 2 puntu.

– 2 puntu, helburu espezifikoa lortzeko behar diren elementuekiko koherentea den esku-hartze logika bat badu proiektuak.

– Puntu 1, esku-hartze logikak akatsak baditu.

1.4.– Jardueren eta jarduera horiek gauzatzeko baliabideen arteko harremana: gehienez ere 4 puntu.

– 3 puntu, jarduerak, baliabideak eta kostuak guztiz zehazturik badaude eta koherentzia badago esku-hartzearen logikaren eta aurrekontuaren artean.

– 2 puntu, banakatzea osoa ez bada edo esku-hartzearen logikaren eta aurrekontuaren artean proportziorik ez bada.

– Puntu bat gehiago, jarduerak behar bezala deskribatuta baldin badaude.

1.5.– Jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta ebaluagarriak. Gehienez ere 6 puntu.

– 6 puntu, helburu espezifikoari eta espero diren emaitzei dagokienez, adierazle zehatz eta egiaztagarriak ezartzen badira.

– 3 puntu, baldin eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira.

– Puntu 1, adierazleak eta egiaztatzeko iturriak nahikoak izanda ere, alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

1.6.– Euskal erakunde eskatzailearen Ekintza Humanitarioaren Plan Estrategikoaren balorazioa, eta proiektua plan horretan txertatzea: gehienez ere 5 puntu.

2.– Proiektuaren bideragarritasun orokorra: gehienez ere 11 puntu.

2.1.– Bideragarritasun teknikoa: gehienez ere 7 puntu.

– 6 puntu, proiektua gauzatzeko erabili behar diren baliabide teknikoak buruz (planoak, bitarteko materialak eta pertsonalak...), eta, hala badagokio, azterlan ekonomikoak buruz behar adina informazio aurkezten bada.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

- 2 puntu, baliabideei buruzko informazioa osatugabea bada.
- Puntu 1 gehiago, proiektuaren barnean hartutako langileen eta ondasunen segurtasun-baldintzak kontuan hartzen badira, bereziki testuinguru ezegonkor edo gatazkatsuetan (segurtasun-protokolo idatzia izatea, langileei informazioa eta prestakuntza eskaintzea eta abar).

#### 2.2.– Erakunde-bideragarritasuna: gehienez ere 4 puntu.

- 2 puntu, proiektuaren exekuzioan erakunde esanguratsu batek parte hartzen badu, eta horrek proiektuaren guztizko aurrekontuari % 5etik gorako aurrekontu-ekarpena egiten badio.
- Puntu 1, ordezkartza-erakunde baten abalak proiektua babesten badu, edo proiektua egiteko beharrezko administrazio-neurriak hartu badira.
- 2 puntu gehiago, tokiko bazkideen, tokiko eta nazioarteko GKEen, agintarien eta/edo aldebiko agentzia edo agentzia multilateralen arteko koordinazio-mekanismo batean parte hartzen bada.

#### 3.– 3 puntu gehienez ere, egoera ahulean dauden kolektiboek lehenetsua ematea.

- 3 puntu, krisi humanitario baten eraginpeko biztanleria hautatzeko irizpide argi batzuk ezartzen badira.
- Puntu 1, hautaketa-irizpideak argiak ez badira, edo eraginpeko biztanleriaren barnean, krisi humanitario batek kalteturiko pertsonak ez ezik, beste pertsona batzuk ere hartzen badira.

#### 4.– Lehenetspen geografikoa: gehienez ere 4 puntu.

- 4 puntu proiektua honako herri hauetako batean gauzatzen bada: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Brasil, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Boli Kosta, Ruanda, Mozambique, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublikar Demokratikoa, Angola, Uganda, Burundi, Palestina eta India.
- 2 puntu, herrialdearen edo eskualdearen GGla 0,699tik azpikoa bada, edo EBk identifikaturiko krisi ahaztuetako bat bada.

#### 5.– Zeharlerroak: gehienez ere 23 puntu.

- 5.1.– Konektibitate-irizpideekin ahultasun-egoera murriztea eta tokiko gaitasunak sendotzea: gehienez ere 6 puntu.
- 5.2.– Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea: gehienez ere 5 puntu.
- 5.3.– Babesa, testigantza eta bake-eraikuntza: gehienez ere 5 puntu.
- 5.4.– Genero-ekitatea: gehienez ere 5 puntu.
- 5.5.– Jasangarritasun ekologikoa: gehienez ere 2 puntu.



6.– Partzuergoak: gehienez ere 2 puntu.

- Puntu 1, proiektua euskal erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzaten badu.
- Puntu 1, proiektua toki-erakundeen partzuergo batek elkarlanerako programa baten barruan gauzaten badu.

II.– TOKIKO ERAKUNDEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLOAK: 16 PUNTU.

1.– Esperientzia: gehienez ere 3 puntu.

- 3 puntu, legez eratu zenetik gutxienez 8 urte igaro badira eskabidea aurkezten den egunean, eta sektore humanitarioan esperientzia iraunkorra egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.
- Puntu 1, legez eratu zenetik gutxienez 8 urte igaro badira eskabidea aurkezten den egunean, eta sektore humanitarioan azdizkako esperientzia egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez ere 2 puntu.

- 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago.
- - Puntu bat, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta- laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

3.– Tokiko erakundeak xede-biztanleriarekin duen harremana: gehienez ere 4 puntu.

- 4 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-biztanleriarekin, proiektuaren eremu geografikoan.
- 2 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-biztanleriarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

4.– Tokiko erakundeak xede-biztanleriarekin duen harremana: gehienez ere 4 puntu.

- 4 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak berariaz barne hartzen badu xede-biztanleria.
- 2 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak orokorrean barne hartzen badu xede-biztanleria.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

5.– Printzipio eta estandar humanitarioekiko atxikimendua: gehienez ere 2 puntu.

- Puntu 1, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
- Puntu 1 gehiago, Hirugarren Munduari buruzko irudiei eta mezuei lotutako jokabide-kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.

6.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez ere puntu 1.

- Puntu bat, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

III.– EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA EDO EAE-KO ORDEZKARITZA 14 PUNTU.

1.– EAEko gizarte-oinarria: gehienez ere 4 puntu.

- Puntu 1, 200 bazkide baino gehiago baditu.
- Puntu 1, 10 bolondres baino gehiago baditu.
- Puntu 1, azken urtean ekintza humanitarioari buruzko hiru sentsibilizazio-ekintzatik gora egin baditu.
- Puntu 1, portaera-kodea duen lankidetzak koordinakunde edo sareren batean badago eta bere jarraipen-batzordeak zehaturik ez badago.

2.– Esperientzia: gehienez ere 2 puntu.

- 2 puntu, legez eratu zenetik 5 urte edo gehiago igaro badira eta sektore humanitarioan esperientzia iraunkorra duela egiaztatzeko dokumentu bat aurkezten badu.

3.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez ere 2 puntu.

- 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzak-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago.
- Puntu 1, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna aintzat hartuta), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzak-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

2014ko urtarrilaren 31, ostirala

- 4.– Tokiko gizarte-erakundearekiko harremana eta esperientzia eremuan: gehienez ere 3 puntu.
- 3 puntu, erakunde eskatzaileak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, bost urte baino gehiagoko esperientzia badu tokiko gizarte-erakundearekin, elkarrekin proiektuak kudeatzen.
- 5.– Printzipio eta estandar humanitarioekiko atxikimendua: gehienez ere 2 puntu.
- Puntu 1, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide-Kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
  - Puntu 1 gehiago, Hirugarren Munduari buruzko irudiei eta mezuei lotutako jokabide-kodearekiko atxikimendu-adierazpena eransten bada.
- 6.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez ere puntu 1.
- Puntu 1, erakunde eskatzaileak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.